




**PERTSONAK GARA,  
ESKUBIDEAK DITUĞU.  
INOR EZ ETXERIK GABE.**

**Etxerik gabeko pertsonen kanpaina.  
2017ko azaroaren 26a**



ANTOLATZAILEA:

ERAKUNDE LAGUNTAILEAK:



# ESKUBIDEAK EZ DIRA OPARIAK, GIZAKIAREN BEREZKO EZAUGARRIA DIRA.


“Gizaki guztiak aske jaiotzen dira duintasun eta eskubideen berdintasunean; arrazoi eta kontzientzia duten heinean, senidetasun senez jokatu behar dute beraien artean”.

*(Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1 artikulua).*

2017an “Inor Ez Etxerik Gabe” Kanpainaren 25. Urteurrena ospatu genuen eta egindako ibilbidearen garrantzia azpimarratu nahi dugu, etxerik gabeko milaka pertsonen duintasunaren eta eskubideen alde eginez, aurpegi zehatz horiek aurrera egiteko adorea ematen baitigute.

1992an ere (Kanpainaren lehen urtean) hauxe aldarrikatzen genuen: “Ostatu duin baten alde”. 2017an honakoa diogu: “Pertsonak gara, eskubideak ditugu. Inor Ez Etxerik Gabe”. Eskubideen aldeko mezu hau sendo errepikatzen da, eta hala ere ez du ez baliorik ez indarririk galtzen; alderantziz, gero eta ozenagoa da.

“Inor Ez Etxerik Gabe” Kanpainak ondokoa nabarmendu nahi du: gizaki oro errepikaezina da, duintasunean bizitzeko eskubidea du eta nazioarteko, nazioko, autonomiako eta tokiko legeriek beren arauetan jasotako giza eskubideak ditu eskura.



Etxeaz mintzo garenean, duela zenbait urte Kanpainetan landu duguna datorkigu gogora:

**“ETXERIK EZ IZATEA ATERPERIK  
EZ IZATEA BAINO GEHIAGO DA”**



## **PERTSONAK GARA, ESKUBIDEAK DITUGU.**

### **INOR EZ ETXERIK GABE**

Aurtengo Kanpainaren leloa hauxe da: “Pertsonak gara, eskubideak ditugu. Inor ez etxerik gabe”. Ageriko baieztapenak ematen badute ere, ohiko errealitateak bestelako aurpegia erakusten digu, eta giza eskubideak egunero urratzen dira (osasunerako edo etxebizitzarako eskubideak besteak beste) edo ez dira etxerik gabeko pertsonen eskura egoten. Kanpainarekin honakoa lortu nahi dugu:

- 1) Bistaratu etxerik gabeko pertsonen egunero topatzen dituzten zailtasunak beren giza eskubideak eskuratu eta erabiltzeko (osasuna, etxebizitza, parte-hartzea, gizarte-babesa, etab.).
- 2) Salatu etxerik gabeko pertsonen pairatzen dituzten eskubide-uraketak.

3) Gogorarazi Giza Eskubideak erantzukizun partekatua direla. Estatuek eta Administrazioek eskubideak bermatu eta garatu behar dituzten arren, haien eskuragarritasuna eta erabilera errazteko inplikatu behar dugu, herritar guztien, gizarte-erakundeen, administrazioen, komunikabideen eta bestelakoen konpromisoarekin.

Betiere izaera globaleko ikuspegiarekin, elkarrekin lotuz, eta ez bat bakarrik nabarmenduz: eskubide guztiak elkarrekin, batera, egunero, leku guztietan...

## ESKUBIDE GUZTIAK, EGUNERO, LEKU GUZTIETAN

Giza Eskubideen ezaugarri batzuk:

- Integralak dira, gizakiaren ikusmoldea haren dimentsio guztietan proposatzen dutelako
- Elkarren mendekoak dira, ez dago garrantzitsuagoa den eskubiderik, eta eskubide bat gauzatzeko beste batzuk erabiltzea ahalbidetzen du.
- Giza eskubideen kontzeptua unibertuala eta barneratzailea da, pertsona guzti-guztientzat beharrezkoak direlako, norbanakoaren mailan nahiz taldekoan.

- Berdintasunean eta bazterkeriarik gabe erabiltzen dira: ez dago bestelako tratua justifikatzeko arrazoi ekonomikorik, sozialik, kulturalik, historikorik edo politikorik.
- Baldintzatu gabeak eta galdagarriak dira, ez dira administrazioaren edo legegilearen opariak. Ez daude lan edo administrazio baldintza zehatz batzuk betetzearen menpe.
- Ezin dira ezerezean geratu, eraginkorrak eta bermatuak izan behar dute.
- Denon ongizateetik eta elkartasunetik baliatzen dira: izan ere, zuk ezin badituzu zure eskubideak erabili, neureak urratzen dira.



# HAUSNARTZEKO ZENBAIT DATU<sup>1</sup>

Bizi dugun **desberdintasun-egoera** etengabea, datu makroekonomikoek adierazten duten ziklo-aldaketa gorabehera. Espainia oraindik ere krisiaren hasieratik desberdintasuna gehien hazi den bigarren herrialdea da Europar Batasunean, eta Estatuko hiru pertsonarik aberatsenek pobreenen % 30en aberastasuna metatzen dute.

**Pobreziaren datuen** atzean aurpegiak eta pertsona zehatzak daude, eta ezin dugu ezikusiarrena egin: Espainian guztira 11,7 milioi lagunek (3,8 milioi etxebizitzak) gizarte-bazterkeria prozesuren bat pairatzen dute, eta 5 milioi lagun dagoeneko bazterkeria larrian bizi dira, 2007an baino % 82,6 gehiago.

*(1) Extraídos de la Guía de Campaña "Nadie Sin Hogar 2017". Cáritas Española*

## IA 700.000 ETXEBIZITZAK (1,3 milioi lagunek)

### EZ DUTE DIRU-SARRERARIK

**Etterik gabeko pertsonen egunero zailtasunak dituzte beren eskubideak erabiltzeko. Hona hemen adibide batzuk:**

**Etxebizitza duin eta egokiaren eskubidea izateko edo mantentzeko zailtasunak:**

10 lagunetik 4 ezusteko gastuei aurre egiteko gaitasunik ez duten etxebizitzetan bizi dira. Gizarte erakundeon ustez, Espainian etterik gabeko 40.000 lagun baino gehiago daude, baina 3.443.365 etxe hutsik daude (biztanleriaren eta etxebizitzaren 2011ko azken zentsuaren arabera). Ezinbestekoa eta premiazkoa da etxebizitza sozialaren parke publiko egokia egotea, eskuragarria eta irigarria, batez ere etterik gabeko pertsonentzat.

# ESPAINIAN ETXERIK GABEKO 40.000 LAGUN

## BAINO GEHIAGO GARA

- Osasun sistemara sartzeko zailtasunak daude, osasun txartela lortzeko desberdintasunak lurraldeen arabera, baita zerbitzu berezietan emandako arretan ere, larrialdietan edo adimen osasunean besteak beste.

- Berdintasun eza lurraldean gizarte-babeserako sisteman sartzeko: erroldatzea, gutxieneko errentak, gizarte prestazioak, etab.



- Udal legeria eta ordenantza batzuek pobrezia kriminalizatu eta zigortzen dute, eta hirigintza erasotzaileak ere etxerik gabeko pertsonen kaleko bizitza zailtzen du (bankuak kendu, disuasio-neurriak jarri, ziriak edo mutiloiak besteak beste, etab.)
- Etxerik gabeko pertsonenganako gorroto-delituak giza eskubideen urraketa nabarmena dira. Gorroto-delituen aurkako Hatento izeneko Behatokiak dioenez, etxerik gabeko pertsonen % 47,1ek gutxienez gertaera edo delitu bat aipatzen dute etxerik gabeko egoeran jasandako bazterkeriarekin lotuta.

**Etterik gabeko pertsonen eskubideak erabiltzeko zailtasunen aurrean, honakoak proposatzen dizkiegu...**

## **ESKUBIDEEN ALDEKO PROPOSAMENAK**

- 1. Administrazio Publikoei:** egiturazko aldaketak egin ditzatela etxebizitza duin eta egokiaren aldeko giza eskubidea ezartzeko. Inor ezin da kalean bizitzera behartuta egon, beraz etxebizitza segurua eta ekonomikoki irisgarria lortzeko moduak lehenetsi behar dira, esaterako, gizarte alokairua, erabileraren lagapena eta jabetza kooperatiboa. Halaber, etxebizitza hutsak gizarte-alokairurako sustatzea proposatzen dugu.
- 2. Herritar guztiei:** beren lurraldeko gizarte erakundeak ezagutu eta haieran parte har dezatela, etterik gabeko pertsonen eskubideak sustatu eta balioan jartzeko. "Eskubidedun eragileak" izatea gizarte-mobilizazioaren bitartez.
- 3. Komunikabideei:** eskubideen aldeko hizkera eta ikuspuntutik informatu dezatela, etterik gabeko pertsonak pairatzen dituzten oztopoak deuseztatzen laguntzeko, estigmatizazioa saihesteko eta eskubidedun pertsona bilakatzeko.

Síguenos en:



Grupo

"Nadie sin Hogar"



@NadieSinHogar